

IRAKASGAIA:
MAILA: 4. DBH
DENBORALIZAZIOA: 55 minutu

3. UNITATEA_ ESKUBIDE ERREPRODUKTIBOAK

HELBURU OROKORRA
Ikasleek eskubide erreproduktiboei buruzko ezagutza orokorra eskuratzea eta haien inguruan hausnarketa kritikoa egitea
HELBURU ESPEZIFIKOAK
- o Ikasleek eskubide erreproduktiboen oinarrizko kontzeptuak eta haien garrantzia ulertzea. - o Iraganaren eta orainaren lotura lantzea, frankismo garaiko egoerak eta gaur egungoak konparatuz. - o Kasu erreal baten bidez testuingurura hurbiltzea eta enpatia lantzea.
JARDUEREN SEKUENTZIAZIOA
1. ARIKETA: Eskubide erreproduktiboak 2. ARIKETA: Frankismo garaia eta gaur egun 3. ARIKETA: Las 11 de Basauri

1. ARIKETA: Eskubide erreproduktiboak

Denboralizazioa	25 minutu.
Materialak	Irakasleak: Material teorikoa, proiektorea eta bozgorailua.
Helburuak	Ikasleak: ordenagailua, ariketa.
	Emakumeek frankismoan bere erabaki eta

Jardueraren garapena:

Ikasleek 3. unitateari hasiera emango dizkien bideo batzuk ikusiko dituzte. Ondoren, irakasleak gai honi dagokion teoria azalduko du ikasleek landuko dutena uler dezaten. Amaitzeko, ikasleek hurrengo galderak erantzun beharko dituzte:

- o Zein zen emakumeen funtzio nagusia frankismoan?
- o Zer esan nahi zuen "familia-burua" izateak? Zein eragin zuen emakumeen eskubideetan
- o Zer zen guraso-ahala eta nork zuen eskubidea haurren gainean erabakitzeko?
- o Zergatik debekatu ziren antisorgailuak eta abortua frankismo garaian?
- o Zer ziren infantizidioa eta ohorezko delituak?
- o Zer helbururekin sortu zen familia-sorospena? Nork jasotzen zuen?
- o Zein aldaketa gertatu dira abortuaren inguruko legedian 1985etik gaur egunera?
- o Antisorgailuak gaur egun eskuragarriak dira, baina zein arazo daude oraindik klase sozial ezberdinetako emakumeentzat?
- o Nola eragiten du egoera ekonomikoak emakume batek ama izateko erabakian?

2. ARIKETA: Frankismo garaia eta gaur egun.

Denboralizazioa	10 minutu
Materialak	Ikasleak: ordenagailua.
Helburuak	Frankismo garaian ezarritako arauak gaur egun duten islapena aztertzea

Jardueraren garapena:

Hurrengo ariketan ikasleek frankismo garaiko eta gaur egungo zenbait egoera sailkatu beharko dituzte. Horretarako hurrengo baieztapenak frankismo garaikoak edo gaur egungoak diren adierazi beharko dute:

- o Emakumeek ezin zuten antisorgailurik erabili, legeak debekatzen zuelako.- Frankismoa.
- o Ezkondutako emakumeek ezin zuten seme-alaben gaineko guraso-agintea izan.- Frankismoa.
- o Ama izatea erabaki pertsonala da, baina faktore ekonomikoek eragin handia dute.- Gaur egun.

- o Abortua eskubide bat da Espainian, nahiz eta hainbat eragozpen egon.- Gaur egun
- o Estatuak emakumeak ugalketarako tresna gisa ikusten zituen, familia babestu eta handitzeko.- Frankismoa.
- o Emakumeek ezin zuten haien gorputzaren gaineko erabakirik hartu, gizarteak erabakitzen zuen haien ugalketa.- Frankismoa.
- o Amatasun-laguntzak daude, baina ez dira nahikoak emakumeek lan-prekarietaterik gabe ama izateko.- Gaur egun.
- o Emakume batek ezin zuen bere seme-alabak adoptatu; gizonek zuten eskubide hori.- Frankismoa.
- o Antisorgailuak legez debekatuta zeuden eta haien erabilera zigortua zegoen.- Frankismoa.
- o Legez, emakumeek ez dute baimenik behar ama izateko edo ez izateko erabakian, baina presio soziala eta ekonomikoa handia da.- Gaur egun.
- o Estatuak emakumeak etxean mantentzeko politikak ezarri zituen, haien ugalketa kontrolatzeko eta familia indartzeko.- Frankismoa
- o Amatasun-baimena existitzen da, baina ama gehienek lanera bueltatu behar dute baldintza prekarioetan.- Gaur egun.
- o Gizarteak oraindik presio handia egiten die emakumeei ama izateko, nahiz eta aukera pertsonala izan beharko litzatekeen.- Gaur egun.

3. ARIKETA: Las 11 de Basauri

Denboralizazioa	20 minutu.
Materialak	Ikasleak: ordenagailua.
Helburuak	Frankismo garaiko eta gaur egungo emakumeen bizitzaren eta horiei ezarri zaien arauen inguruan hausnartzea.

Jardueraren garapena:

Ikasleek "Basauriko 11 emakumeak" kasuaren inguruko artikulua bat irakurriko dute. Ondoren, hurrengo galderak kontuan hartuta, hausnarketa ariketa bat egingo dute egoera horren ulermen sakonagoa lortzeko. Benetako kasu honen bidez, ikasleen interesa piztea da helburua.

<https://www.naiz.eus/es/2024/20240325/la-absolucion-de-las-11-de-basauri-juzgadas-por-abortar-un-hito-en-la-lucha-por-la-legalizacion-del-aborto>

- o Imagina Basauriko hamaika emakumeetako bat zarela, eta 70eko hamarkadaren amaieran auzipetuta zaude abortatzeagatik. Zer sentimendu izango zenituzke zure bizitzan eta gorputzean eragiten duen erabaki batengatik epaituak izatea?
- o Imagina zure familia edo lagun hurbil batek Basauriko emakumeen egoera bizi izan zuela. Nola lagunduko zenieke, eta zer hitz edo babesa eskaintzen zenieke egoera horretan? Zer garrantzi du laguntzak eta elkarrekiko ulermenak horrelako egoeretan?
- o Pentsa emakume bat dela, gaur egun abortatzeko erabakia hartu duena, eta gizartearen eta politikaren testuinguru egungoan dago. Zer motatako laguntza emozionala behar izango du ?
- o Imagina ez duzula abortua legeztatzea onartzen, baina ikus dezakezu emakumeek bizi duten sufrimenduak eta zalantzak. Nola aldatuko litzateke zure iritzia emakume horien bizipenak eta sentimenduak gehiago ulertzen badituzu?
- o Basauriko emakumeak auzipetuta egon ziren gizarteak haien erabaki pertsonalak epaitzen zituenean. Zer eragin izango luke zure bizitzan hori gertatzea, eta zer sentituko zenuke gizarteak ez ulertzea eta bakarrik sentitzen zarela?